


FUNTSEZKO JARDUERAK:





DryNGo

Funtsezko jarduerak ez dira soilik gure enpresa garatzen dituen produktuak edo zerbitzuak, baizik eta guztia funtzionatzeko eta etorkizun arrakastatsua bermatzeko ezinbestekoak eta oinarritzkoak diren zereginak. Jarduera huek hiru ataletan sailkatu ditzakegu:

Ekoizpena:

Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena da. Ez dugu gure enpresan ekoizten, baina bai hornitzaileei sortzeko agindua ematen diegu eta beste enpresen bidez abiarazten da produktua. Gure produktua abian jartzeko harremanetan gauden beste enpresei guk agintzen diegunez, betebeharrak dituzte gure produktua ekoizteko. Epeak betetzeari garrantzi handia ematen diogu, denbora-epeak eta salmenta-epeak, izan ere oso garrantzitsua dela deritzogu ekoizteko eskaera egiten diegunetik, agindutako denboran eskaria sortua egotea, gure bezeroak produktua nahi duten unean eskura izan dezaten. Gure produktua salmentan jartzen duten dendetako biltegieta era mateko, FedEx enpresaren bitartez, behar diren segurtasun-neurriak jarraitzen direla zihurtatzea ezinbestekoa da.

Arazoak konpontzea:

Arazoak konpontzeko beti prest egongo gara. Bezero bat gure produktuarekin gustura ez badago edo arazoren bat badu, lehenengo pausua, bezeroarekin hitz egitea eta konponbide bat aurkitzea izango da, akordio batera iristeko asmoarekin. Legezko gaiak izanez gero, abokatu bat kontratatuko dugu. Beste puntu batzuetan esan dugun bezala, arazorik izanez gero irtenbide amankomuna produktua itzultzea izango zen eta noski barkamena eskatzea. Barkamena gauzatzeko, beste unitate bat doan emango genuke. Bezeroarekin harreman ona izatea funtsezkoa da gure enpresarako eta hori zihurtatzeko gure eskuetan dagoen guztia egiteko prest gaude.

Plataforma edo sareko jarduerak:

Enpresaren webgunea eta sare sozialak kudeatzea, mantentzea eta honen erabilera sustatzea ere funtsezkoa da guretzat, gu enpresako lau bazkideak hauetaz arduratzen garelako. Modu honetan, bezeroek produktuaren berri izan dezaten. Gure produktua salmentan jartzen duten dendek ere euren webgunea dute eta bertan gure produktuari buruzko informazioa ere eskura izango dute enpresek. Merkealdiari eta eskaintzen berri izateko, denda hauen eskuz egongo da informatzea. Sare sozialak erabiliko ditugu nolabait bezero berriak erakartzeko eta aurrekoak leialtzeko.